

datorrena

Sorkuntza galera da telelanaren kalte nagusietako bat **IÑAKI SOTO > 3**

ULLANS: Aurrera egin nahi duen Irlandako «beste» hizkuntza ezezagunari hurbilpen bat **> 4**

2022ko abuztuaren 6a | XVI. urtea • 785. zbk.
0,50 euro


GAUR8

mila leiho zabalik
www.gaur8.info

RUTH OLAIZOLA SANCHEZ



AKTORE HERNANIARRAK
25 URTE BAINO
GEHIAGO DARAMATZA
PARISEN, JOËL
POMMERATEN
KONPAINIAREKIN
LANEAN,
«ASKATASUNA» EMATEN
DION ANTZERKIA
LANTZEN. **> 10** OLAIZOLA



Ullans: Irlandako iparraldean
urratsak egiten ari den «beste»
hizkuntza ezezaguna 04

Ruth Olaizola Sanchez, Parisen
antzerkia lantzen 25 urte
daramatzan hernaniarra 10

Annemiek Van Vleuten eta
Marianne Vos, Herbehereetako
beteranoak nagusi Tourrean 14

Pantaila txikian: Sagar
hozkatuaren urtea 18

Juantxo Egañaren “Behatxulotik”:
Donostia, lehen abiazio
erakustaldien lekuko 23



SINADURAK:

- 03 **Iñaki Soto:** Sorkuntza galera da telelanaren kalte nagusietako bat
- 08 **Jonander Agirre Mikelez:** Balio arkitektonikoa
- 09 **Mikel Zubimendi:** Albisteeekiko intolerantzia
- 13 **Amaia Ballesteros**
- 16 **Gorka Zozaia:** Ziztadek beldurra inokula ez dezaten
- 17 **Itzea Urkizu Arsuaga:** Zainetara
- 21 **Maidar Iantzi Goienetxe:** Isilgauzak
- 21 **Xabier Mikel Errekondo:** Piratak
- 22 **Maitena Usabiaga Sarasua:** Atzo manada, gaur ziztadak... bihar zer?



{ datorrena } Iñaki Soto

Sorkuntza galera da telelanaren kalte nagusietako bat

Pandemian izan ditugun esperientzietan oinarrituz, guztiok ditugu telelanari buruzko iritziak. Hori aztertzen duten ikerketak argitaratzen ari dira orain. Zenbait ondorio bat etorriko dira gure bizipenekin eta beste zenbait, ordea, gure iritzien kontra joango dira. Derek Thompsonen “The Atlantic”-en idatzitako artikulubatean, “The Biggest Problem With Remote Work”, honi buruzko ikerketak bildu eta gogoeta egiten da.

Adibidez, pandemian plantillan sartu ziren gazteek enpresaren kultura ezagutzeko arazoak izan ditzakete: nola kudeatzen diren arazoak, zer dagoen ondo ikusita eta zer ez... Baliteke iritsi berriek lankide manipulatzailerak, toxikoak edo axolagabeak ez atzematea. Era berean, Internetez lagun diezaieketen pertsonak identifikatzea ez da erraza. Noski, kontrako ere gerta liteke: lan testuinguru toxiko batean sartzea iritsi ez ziren gazteak, pandemiari esker lan ohitura osasuntsuagoak hartu ahalko zituzten.

Oro har, telelanak ez du talde berriak eta zeregin berriak sortzen laguntzen. Komunikazioa biderkatzen du lehendik zeuden taldeen artean, baina arloen arteko lankidetzak murrizten du. Bulegoetan sinergiak errazagoak omen dira. Microsoftek Berkeleyko Unibertsitateari eskatutako ikerketa batek hala baieztatu zuen. Beraien ustez, bulegoko lan nagusia berrikuntza sortuko duen elkarriketa sustatzea da.

Jane Jacobsen teoriak omen daude ikerketa hauen atzean. Bere arabera, hiriak testuinguru berritzaileak dira, espazioa konpartituz gero, lehiakideen arteko kontaktua ideiak «polinizatzen» baititu. Harreman zuzena duten pertsonen gehiago aipatzen dute elkar, esan diotena kontatzen dute beste jende baten aurrean eta beren lana lehiakideen lanarekin aberasten dute.

Urrutiko lanak, aldiz, ideia disruptibo berriak sortzea zailtzen du. “Nature”-n argitaratutako esperimentu batean, ingeniari talde bat biltzen zuten eta bikoteka banatzen zituzten, bikote batzuk urrutitik eta beste batzuk aurrez aurre lan egitera behartuz. Ideia ekaitz bat eta proposamen batzuk egin behar zituzten. Fisikoki elkarrekin lan egin zuten taldeek ideia gehiago eta hobeak sortu zituzten, urrutiko lankidetzan aritzen ziren bikoteak baino askoz ere sortzaileagoak izan ziren.

Laburbilduz, urrutiko lana zailagoa da langile berrientzat, talde berrientzat eta ideia berrientzat. Komunitate zientifikoan, ordea, honi buelta ematea lortu dute. Historikoki telelana handicap bat bazen ere, duela hamar-kada bat hori aldatu egin da, zientzia gehien eta onena, berrikuntza gehien eta onenak, urrutiko taldeek ekoizten baitituzte. Carl Benedikt Frey Oxfordeko ekonomialariaren ustez, proba eta akats askoren ondoren, eta aplikazioen garapenari esker, komunitate zientifikoak oreka emankorra lortu du. Alde batetik, etxeko lan komunitarioa dute eta, beste aldetik, telelanarekin ikerketa taldeez osatutako garun global moduko batekiko lotura dute.

Honaino, ikerketek diotena. Thompsonen hori guztia kudeatuko duten postuak sortu beharko direla dio. Ez dakit. Gero enpresa desberdinak, legedi diferenteak, kulturak eta pertsonak baitatoz. Baita horien guztien interesak, inertiak eta talkak ere. Sorkuntza aberastasuna sortzeko ezinbestekoa dela argi dago eta pertsonen arteko harremana da horren funtsa. Lan baldintzak eztabaizdagai zentrala izango dira datozen urteetan, ez agian orain arteko parametro berdinetan, ordea. •

Laburbilduz, urrutiko lana zailagoa da langile berrientzat, talde berrientzat eta ideia berrientzat. Zientzian, ordea, ikerketarik hoberenak eta berrikuntza gehien urrutiko taldeek sortzen dituzte

IRLANDAKO «BESTE» HIZKUNTZA

Karlos Zurutuza

Gutxik daukate ullans izeneko hizkuntzaren berri. Ostiral Santuko itunak «Irlandako kultura aberastasunaren adierazletzat» hartu arren, bere hitunen ahotsa apenas entzuten den Ipar Irlanda bipolarrean. Azken hamarkadan, baina, ullansaren normalizaziorako pauso handiak eman dira.

Lair dugu gaurko hitza, «hondoratu edo harrapatuta geratu». Bere Twitter kontutik, Rían Ó Díomasaigh-ek adibide batekin irudikatzen du: «*Fir newance we 've got snaw that' s mair nor a pouthery skinklin, an ye micht lair in it gin ye dinnae tak tent!*».

Hau arazorik gabe ulertzen baduzu, Irlandako iparraldean bizi zara, ziurrenik, eta ullans hizkuntza menderatzen duten ehun mila lagunetako bat izango zara. Gainontzekoentzat, horrelako zerbait izango litzateke: «Behingoz, hauts fina baino gehiago den elurra dugu, eta, arreta jartzen ez baduzu, hondoratu egingo zara». Irlandan gaeliko pixka bat eta, batez ere, ingeles asko entzutea espero bagenuen ere, hirugarren hizkuntza misteriotsu batekin egin dugu topo.

Asko dago kontatzeko: hizkuntzalaritzaz, giza-kien arteko harresiez eta alanbre hesiez, mundu berri batean hutsetik hasteaz eta, oro har, bizi-tzaz. Jarraitu aurretik, testuinguru pixka bat.

Ingalaterrako kostaldea ez da Irlandako inongo tokitatik ikusten; bai ordea, Eskoziakoa. Horrela, ez da harritzekoa bi ertzetako jendeak itsasoa zeharkatu izana historian zehar. Irlandako lehen biztanleak, esaterako, duela zortzi mila urte inguru iritsi omen ziren Eskoziatik eta, Kristoren garaian, jakin badakigu Irlanda izan zela erromatarrek inbaditu ez zuten eskualde bakarra mendebaldeko Europan. Legio bakarra bidali zuten, baina, antza, tokia ez zitzaien batere gustatu. Erromatarrek Hibernia («neguko lurra») deitu zioten uharte heze eta ilun hari, eta *scoti* («gaizki-leak, arpilatzaileak») han bizi ziren tribu zeltei.

Scoti horiek, hain zuzen, Eskoziari eman zioten izena, eta beren hizkuntza zelta eraman zuten bertara. Oraindik hitz egiten da Highland-etan,



Unescok babesturiko erraldoien galtzada da Ipar Irlandako mugarririk ezagunena
Evelyn MAC CULLOUGH

Lur Garaietan, baina haranetan, Lowlands-etan, erresumak nahiz ejerzitoak eraiki ziren. Horiek denak ingelesaren iparraldeko aldaera germaniar batean hitz egin zuten, «eskoziera» edo «lallans» (Lowlands) deiturikoa. Egia da gaelikoa entzute handiko hizkuntza izan zela Eskozian XIII. mendera arte, baina Robert the Brucek, William Wallacek edo gainontzeko errege eta buruzagi nagusiek lallansa zuten ama hizkuntza.

Irlandara itzuli aurretik, eskoziera hizkuntza bat, dialekto bat edo «gaizki hitz egindako ingeles bat» ote den argitu beharra dago. Hizkuntzalari batentzat eztabaida absurdoa da, baina ezin ukatu garrantzi handiegia eman zaiola maiz «hizkuntza/dialektoa» ekuazio honi. Ea bada: Erresuma Batuko aldaera germaniarren artean (ez da ingeles berdina hitz egiten Liverpool, Yorkshire edo Kenten), Eskoziakoek osatzen duten multzoa dugu gehien bereizten dena. Horrek hizkuntza bilakatzen du lallansa? Bai eta ez. Adibide batez errazago ulertzen da

hau. Bazen behin Jugoslavia izena zuen herrialde bat. Bertakoak serbo-kroaziera izeneko hizkuntza batean mintzo ziren, baina gerrak eztanda egin, herria zatitu, eta horrela azaldu ziren kroaziera, serbiera eta bosniera munduko hizkuntzen mapan.

Kornuallesko ingeles hitzuneak (Ingalaterrako hego-mendebaldean) eta iparraldeko Newcastlekoek elkar ulertzeko zailtasun handiagoak dituzte serbiarrek eta kroaziarrek baino. Oraingoz, nolanahi ere, bakoitzak bere «ingelesaren dialektoan» hitz egiten duela esaten da. Hona, beste adibide bat: norvegiarrek, suediarrek eta daniarrek ez dute elkar ulertzeko arazorik, baina bakoitzak bere hizkuntza propioa eta bereizia duela onartzen da (norvegiera, suediera eta daniara). Laburbilduz, denok hitz egiten duguna zera da, hizkuntza bat, mintzaira bat... dela aldaera germaniar bat, latindarra, dravidikoa, eslaviarra... Eskoziak independentzia inoiz lortuz gero, eskoziera hizkuntza bat izango da. Politika da, eta ez linguistika.




Eta orain, bai, Irlandara itzuliko gara.

Europako gainerako leku gehienetan bezala, uharteak aspaldi utzi zion elebakarra izateari: Eliza kristauak latinaren ezaugarri batzuk sartu zituen; Dublin sortu zuten bikingoek norvegieraz hitz egiten zuten, eta ingelesez, lehorreratzen ziren gainerakoek. Batzuk uhartean geratu egin ziren, baina Hiberniako eliteek beti bukatzen zuten gaelizatuta. Halaxe izan zen XVI. mendera arte: ingelesak Irlanda konkistatzea erabaki zuten arte. Bertakoak sarraskitu eta lurrik gabe uzteaz gain, gaelikoa tokiko administrazioetik, hezkuntza erakundeetatik eta lanbide liberaletatik baztertu zen. Sistematikoki pobretzeko politika horietaz baliatu zen koroa uhartearen kontrola hartzeko. Bertan, odol jario batez isilarazten zen matxinada saiakera oro.

Eskoziari dagokionez, erresuma independentea izan zen Erdi Aroan. 1603an, alabaina, bertako errege Jaime VI. Ingalaterrakoa ere bilakatu zen, eta, ondorioz, baita Irlandakoa ere. Uhartea zibilizatu gabeko eremu bat zelakoan zeuden okupatzaileak, kontrolatzeko garestiegia eta, batez ere, izugarri katolikoa. Ulster gotorleku gaelikoa zen, aginte ingelesaren

Hizkuntzarekin batera, musika da Ulsterko eskoziarren identitate ezaugarrietako bat.
RSDOA NI

Alboko orrialdeko irudian, pareta batean jasotako esana: «Nire Ulsterko odola nire ondare preziatuena da».
Stuart CAIE




Uharteak aspaldi utzi zion elebakarra izateari: eliza kristauak latinaren ezaugarri batzuk sartu zituen; Dublin sortu zuten bikingoek norvegieraz hitz egiten zuten, eta ingelesez, lehorreratzen ziren gainerakoek

Hala izan zen XVI. mendean ingelesak Irlanda konkistatzea erabaki zuten arte. Bertakoak sarraskitu eta lurrik gabe uzteaz gain, gaelikoa tokiko administrazioetik, hezkuntza erakundeetatik eta lanbide liberaletatik baztertu zen

kontrolpetik kanpo zegoena. Eskozian lur emankorra urria zenez, Jaime erregeari ideia bat bururatu zitzaion: katolikoan lur horiek protestanteei ematea.

1606an hasi zen ofizialki «Ulsterko landaketa» deiturikoa. Eskoziako be-

he lurretako familia osoak kolono gisa bidali zituzten Irlandako ipar-ekialdera: uharteko nortasun gaeliko-katolikoa desagiten laguntzea zen bigarren (edo lehenengo) helburua. Iritsi berriek beren eskoziar aldaera eraman zuten beraiekin, baina baze-



goen kontuan hartzeko beste faktore bat: erlijioa. Ulsterrera iritsi zirenerako, presbiterianoak ziren eskoziarrak; ehun urte baino gehiago zera matzaten aita santu, gotzain eta erregeen autoritatea ukatzen («Kristo baino ez dago gutako edozeinen gainetik») eta Jainkoari otoi egiten bitartekaririk gabe. Berdintasunaren kultura hori ez zetorren bat ez ortodoxia katoliko zurrunarekin, ez eta errege ingeles protestante episkopaliarrekin ere. Armoniarik eza 1641eko Irlandako matxinadak egiaztatu zuen, desjabetuek lapurtutako lurrak

berreskuratu nahi izan zituztenean. Eskoziar asko irlandarrekin batera borrokatu ziren. Ezusteko aliantzak zera uzten zuen agerian: koroaren eta kolonoen arteko lotura ez zela us-te bezain sendoa. Irlandako historiaren kapitulu odoltsu hark milaka hildako eragin zituen batzuen eta besteen artean. Irlandar, eskoziar eta ingelesekin arteko harremana mende luzeetako pozoitu zen. Gaurdaino.

AMERIKA

2016. urtea zen. Barack Obamak Hillary Clintonen aldeko botoa eskatu

Ulsterren, «Amerika sortzeaz» harro. Ideia hori iradokitzen duen murala. FORGED IN ULSTER

Bi aldiz transplantatutako eskoziar horien identitatea desegin egin zen estatubatuarren nortasunean. Haien ekarpena, baina, izugarria izan zen: besteak beste, bere sustraiak Irlandan dituen musika estilo bat (country-a)

Egun, irrati eta telebista saioak daude ullansez eta, jakina, berau ikasteko ikastaroak. Azken hamarkadan gauzatu dira aurrerapen handienak eta «Irlandako uhartearen kultura aberastasunaren adierazletzat» hartzen da ullan

zuen, talde errepublikanorantz lerratzen ziren demokrata horiengana iritsi nahian. «Ulsterko nire arbaso eskoziarrek lan, berdintasun eta justizia balioak transmititu zizkidaten, gaur egun ere indarrean daudenak. Horiei ez diegu uko egin behar», esan zuen presidente ohiak, halako baieztapenak eskatzen zuen solemnitateaz.

Nazio identitatea oso presente dago estatubatuarren artean (norberaren arbasoak italiarrak, ingelesak, hispanoak... izan daitezke), baina nekez jakiten dira koordinatu zehatzak. Amerikar askok «Eskoziatik eta Irlandatik iritsitako birraitona-amonak» ekartzen dituzte gogora, baina askok ez dakite irlandar presbiterianoen migrazio trinko baten ondorena direla: Ulsterko eskoziarrena.

XVII. mendea. Irlandarrek jazarrita eta ingelesek bizkarra emanda, kolono haietako askok berriro itsasoratzearabaki zuten; Ipar Amerikako kolonia britainiarrenantz oraingoan. Talde sendoena 1718an iritsi zen: ehun itsasontzi baino gehiago ziren. Mundu berrian zortea probatuko zuten europar guztien artean, Ulsterrekoek osatzen zuten komunitaterik ugariena. Lur merkeen bila zebiltzan, eta horiek, jakina, mendebalderantz geratzen zirenak ziren, arriskutsuenak. Kolonoak ohituta zeuden aitzurra ereiteko nahiz katolikoengandik babesteko erabiltzen. Okerragoak izan zitezkeen indiarrak? Baliteke, baina han, mendebalde urrunean, ez zuten pairatuko ingeles lur jabeen esplotazioa.

Haien ibilbidea erraz jarrai zitekeen maparen gainean, mugarriak mendebalderantz zabaltzen ziren eliza presbiterianoak ziren-eta. Tenplu haietan, Antrim eta Donegalekoak, Armagh eta Coleraynekoak elkartu, eta bertan ezkondu ere egiten ziren, elkarren artean, MacLaughlins, Kirckpatrick eta MacLallans... familietako seme-alabak. Suediar eta alemanengandik ikasi zuten beren etxolak eraikitzen, baina oso gutxitan nahasten ziren haiekin. Ulsterren nahiz Eskozian ger-

tatu lez, Atlantikoaren beste aldean ere likido amniotikoa zen klana.

Baina nekez saihestuko zuten ingeles-jazarpenera. Frantziaren aurkako gerra luze baten ondoren, koroak bere hamahiru kolonia amerikarrei zergak igo zizkien, eta nabarmen. Protesta askoren atzean eskoziarrak zeuden (ez zen ingelesei aurre egin zieten lehen aldia) eta haiek izango ziren matxinada gidatuko zutenak.

William Tennent edo David Coldwell apaizek, esaterako, debekatuta zuten eliza gehienetan sartzea, baina jendetza biltzen zuten kale erdiko agerraldietan. Mezua argia bezain zuzena zen: beren kabuz erabaki dezakete, gizaki guztiak, nekazariak nahiz erregeak, apezpikuak nahiz arotzak berdina baitira Jainkoaren aurrean. Eta hori guztiz iraultzailea zen XVIII. mendean. Francis Hutcheson edo Francis Allison bezalako intelektualek pregoi haien energia aprobetxatu zuten ideologia politiko bat garatzeko.

Bi aldiz transplantatutako eskoziar horien identitatea desegin egin zen estatubatuarren nortasunean. Haien ekarpena, baina, izugarria izan zen; besteak beste, bere sustraiak Irlandan dituen musika estilo bat (country-a) dago eta, jakina, berdintasunean eta justizian oinarritutako proiektu bat: Ulsterreko seme ugari (edo beren jarraitzaileak) zeuden Independentziaren Deklarazioa sinatu zutenen artean.

BALLYMENA

Amerikar kapitulua hain izan da luzea, non ia ahaztu baitzaigu honako hau Irlandako hirugarren hizkuntza misterioitsu horri buruzko artikulu bat dela. Ez ziren denak Ameriketara joan, beraz, Ulsterrera eramandako eskoziar hizkuntzak lauhun urte baino gehiago izan ditu irlandar gaelikoaren hiztegiak, birez eta beste osagai batzuek elikatzeak (baita Ingalaterratik ekarritako germaniar aldaerez ere). Ullansa (glotonimoa «Ulster» eta «lallans» hitzetatik eratorria da) harribitxi bat da. Pubean, taber-



Irlandako hiru hizkuntzak seinale bakar batean.
I-LENTICULARIS

nan, honela piztu daiteke elkarrizketa bat: *Whaur are ye frae?* («nongoa zara?»). Galdera ez-diskretua irudituz gero, erantzuna are iraingarriagoa izan daiteke. *Glumo, glunterpudden, goam, gormet, gulpin, glipe...* Norbait azaldu beharko luke zergatik hasten diren «g» batez «astakirten halakoa» esateko hainbeste sinonimo.

Gaur egun, irrati eta telebista saioak daude ullansean eta, jakina, berak ikasteko ikastaroak. Azken hamarkadan gauzatu dira aurrerapen handiak, eta horrek azalpen zuzena dauka: Ostiral Santuko Akordioa (1998) puntu askok «elkarrenganako errespetuaz» eta «tolerantziak» hitz eginen dute; bertako hizkuntzei dagokienez, «Irlandako uhartearen kultura aberastasunaren adierazletzat» hartzen da ullansa. Uhartearen hirugarren hizkuntza 2000. urtean aitortu zuen Londresek ofizialki, Hizkuntza Gutxituen Europako Kontseiluaren Gutuna sinatu zuenean.

Nola lerratzen dira gaur kolonien herenilobak Irlanda bipolarrenean? Istorio hau ireki duen txiolariari ere

luzatu diogu galdera. «Ulsterko eskoziara historikoki unionistekin lotu izan da, baina bere pisua askoz txikiagoa izan da beste aldekoen gaelikoaren aldean», dio gaelikoa ere menderatzen duen Rían Ó Díomasaigh-ek. «Bi komunitateetako jendek erabiltzen dituzte ullansek hitzak eguneroko hizkeran, baina batzuek irlandar hizkuntzaren aurka mehatxutzat hartzen dute, eta hori penagarria da», azpimarratu nahi du 27 urteko bizar gorridunak.

Ó Díomasaigh Ballymena hirikoa da, Antrim konderrian (Liam Neeson aktorea da bertako semerik ospetsuena). Belfasteko Queens University-n Historia eta Politikan lizentziatu ondoren, gaztea ullansa ikertzen hasi zen tesi baterako eta, dioenez, hizkuntzaren magiak sorgindu zuen. James Parsley izeneko aditu batek gramatika izugarri bat idatzi zuen, eta sarritan erabiltzen du Rianek bere lanerako. Hortik ere ateratu du bihar txiokatuko duen hitza: *curcudyagh*, «elkarrengandik oso gertu eseri». Ez da makala.



Jonander Agirre Mikelez - @jonanderagirre
Arkitektoa

Balio arkitektonikoa

Arkitekto gisa badago noizean behin egiten didaten galdera bat, betidanik harritu naue-na. Zenbatekoa da eraikin baten balio ar-

kitektonikoa? Galdera hau eraikin bat babestea merezi duen ala ez publikoki eztabaidatzen denean atera ohi da eta nik ez dut sekula jakin galdera horren aurreran zer erantzun.

Balio arkitektonikoa arkitektook neurtu dezakegun zerbait objektiboa dela dirudi. Balio arkitektoniko hori antzinatasunak, eraikinaren dekorazio edo balio artistikoak, enkaje historikoak, sinbolismoak edo ezaugarri konstruktiboak aipatuz moldatu daitekeela dirudi. Ez dut uste balio arkitektoniko horrek oinarri zientifikorik duenik. Balio sinboliko eta politiko bat da. Balio arkitektonikoa eraikin baten kapital sinbolikoari taxuzko forma emateko datu enpiriko sorta da. Kapital sinboliko horrek badu, baina, botere politiko handi bat eta kapa-za izan da behin baino gehiagotan proiektuak geldiarazteko.

Galdera hau berriro egin zidaten orain dela aste bat NAIZ Irratiko Ainara Rodriguezek Ander Gortazarrekin batera antolatutako mahai-inguru batean Donostiako Loiolako kuartelen inguruan. Hirian geratzen diren Espainiako armadaren kuartelen eraisketa proposatu izan du aspal-didanik Udalak, bertan auzo berri bat eraikitzeke. Espainiako Gobernuarekin operazioa adostu ostean aurkeztutako proposamenak 1.700 etxebizitzako auzoa irudikatzen du, beste edozein lekutan egon zitekeen proiektu trakets honen ardatzen inguruan antolatuta. Proiektuak, nola ez, hirigile eta arkitektoei atentzioa eman die, bere kalitate eskasagatik

eta tamaina honetako auzo baterako erakusten duen gogoeta eta anbizio faltagatik. Azken berria VOX alderdi ultraeskuindarraren helegitearen onarpenak ekarri du, eraikinak babes-tera behartzen baitu.

VOXi esker Goia alkateak esku artean du normalean eraikinak babestu nahi dituztenen argudio emozional berdina, baina kontrako zentzuan. Zein erraza den orain politikoki saltzea kuartel horien eraisketa beharrezkoa/ezinbestekoa dela, ultraeskuinak mantendu nahi baditu.

Politika polarizazioan da trebea, arkitekturak ñabardurak behar ditu.

Ondarearen debatean sarriegi erortzen da argudio nostalgikoan, aldatekaren aurkako erresistentzia soillean. Gogoeta baterako ematen du ultraeskuina ikusteak eraikinak babesteko eskatzen. Balio arkitektonikoa gaizki ulertzen dugula uste dut.

Nik behintzat ez dut horrela ulertzen. Balio arkitektonikoa konstante bat da. Eraikin orok du balio arkitektonikoa. Arkitektura berez duen ezaugarri bat da, higiezin bat den unetik. Eraikinen estatus perenne hori da arkitektura beste edozein espresio artistikotatik nabarmentzen duena, erabili eta bota logikatik aldentzen duena, bere konformazio basikoenean gaur egungo sistemarekin talkan sartzen dena.

Horrela ulertzen dute Lacaton Vassal arkitektoek. Frantziako Gobernuaren etxebizitza blokeen eraisketa saihesteko eta horien berrerabilera sustatzeko hainbat proiektu sustatu dituzte. Druot arkitektoarekin batera sinatutako "Plus" liburuan txertatzen den manifestu formako "Attitude" testuan argi laburbiltzen dute esaldi batean: *Il s'agit de ne jamais démolir, ne jamais retrancher ou remplacer, toujours ajouter, transformer et utiliser!* •



Ilustrazioa: JONANDER AGIRRE MIKELEZ

{ asteari zeharka begira } **Mikel Zubimendi Berastegi**

Albisteekiko intolerantzia

Minkideak galdetu zidan aurrekoan: noiz irakurri duzu azkeneko berri on bat zure egunkariko lehen orrialdeko tituluari? Kexu antzeman nuen. Pandemiak, gerrak, klima larrialdiaren triskantzak, inflazioa... gauzak eta kontuak deprimigarriak direla esan nion, *ergo*, deprimetua egoteko arrazoiak bazituela. Bizitza erreala dela, eta, oraintsu, bizitza erreala deprimigarria dela. Agian ez dabiltzala oker psikologoak berri txarren gaindosiak kontsumitzeak irakurleentzat osasun kalteak dituela aipatzean. Hortik bota nion errestoa.

Egunkari irakurle amorratua izandakoa, ondoezak jota sentitzen zela aipatu zidan. Glutenarekiko bezala, «albisteekiko intolerantzia» bat garatzen ari zela, egunkariaren tituluek eragindako nolabaiteko «desordena traumatikoa». Larrimin eta depresioen erriuan, ezinaren sentimendu itogarri bat soka-laster eginda-edo. Bere ustez, irakurle denek esperantza behar dutelako esnatu eta ohetik altxatzeko.

Minkidearen hitzak gogoran, Reuters berri agentziak egindako inkesta bat pasatu zidaten eta harrituta orrikatu dut: munduan hamar pertsonatik lauk ihes egiten diote albisteekin kontaktua izateari. Nahitara ekiditen dituzte, sinpleki, berriek erre egiten dietelako. Arazo serioa da, eta ez bakarrik komunikabideentzat, jende engaiatuaren eta informatuaren beharrean den edozein egitasmorentzat. Hamarretik lau, jende asko da, pila-pila bat.

Iragan mendean dominatu eta une historiko honen eskakizunei erantzuteko ezgai dela begi bistakoa den «objektibotasunaren mitoa» lanbidearen kodean gordetzen dugulako? Posible al da, «berriekiko intolerantzia» horri aurre egitea kazetaritzaren oinarritzko printzipio batzuk konprometitzeke? Agian terapia baten beharrean gaude. Eta sendagileek, gure osasunaren onbiderako, berriak kontsumitzeaz uzteko esango digute. Baina ez al zen informatua egotea hain inportantea? Albisteetatik ihes egitea ez al da mundutik ihes egitea bezalakoa? Aditu, aditu diet beste lankide batzuei holako-halako sentsazio hau. Dilema latza, ezta?

Egiten duten produktuak pozoituta bezala sentitzea. Zerbait ez doa ondo, edo kazetariarekin edo berriekin.

Zergatik gertatzen ari da «albisteekiko intolerantzia» hau? Reuters agentziaren inkestaren arabera, berriak errepikakorrek eta etsigarriak direlako, sarritan zalantzazko sinesgarritasun batekoak, jendea indargabe sentituz uzten dutelako. Eta agian ebidentziak hori esaten du: zenbat eta berri gehiago kontsumitu, orduan eta gehiago sufritzen dela. Hortaz, agian badago berriekiko okerra den zerbait. Baina, zer? Jende askorentzat partzialtasuna da. Kazetari askorentzat, aldiz, negozio eredu da, negatibotasuna klikagarria dela.

Nago, ez bata ez eta ez besteak ere ez dutela puzzlea osotasunean erakusten. Pieza inportanteena falta dela: giza faktorea. Etengabe berri eta irudi katastrofiko eta nahasgarriak jasotzeko ez gaudelako buruz eta psikologikoki prestatuak. Azken buruan, mundu digital batean kreatura analogikoak baino ez garelako.

Ez dakit, bada, hiru gauzatxo okurritzen zaizkit: esperantza behar dugula goizero, ura bezalakoa dela. Po-

Etengabe albiste eta irudi katastrofiko eta nahasgarriak jasotzeko ez gaude buruz prestatuak. Azken buruan, mundu digital batean kreatura analogikoak garelako

sibletasun zentzu batean sinistu beharra dagoela, bai ala bai. Eta haserrearekin eta etsipenarekin eraldatzeko, ekitzaren zentzua behar dela ere. Eta, azkenik, duintasun poxi bat, jendea abiapuntu eta helburu hartzea, axola zaigula sentiaraziz, eta, inportanteena, haiei adituz.

Mundua hobeto egongo da jendeak arazoak, mehatxuak eta desafioak, eta aurrerabidean ekiteko zeintzuk diren beren aukera onenak, ulertzen dituenean. Ego oso baxuko eta jakin-min handiko kazetaritza behar da. Irakurleak bazkide errespetagarri legeztatu dituenen. Eta batez ere, «berriekiko intolerantzia» duten %40 horiekin zuzenean tratatzeko kazetariak bidualtzea. Ezin daitezke denak oker egon. Zeren arrazoiak agian ez, baina beren arrazoiak badituzte. •

infraganti

RUTH OLAIZOLA SANCHEZ

Hernanin jaioa. Langile ikastolako hasierako belaunaldietakoa da eta han deskubritu zuen antzerkia, «abentura handi bat» zen ikastola hark eskaintzen zizkion sorkuntza espazioetan. 17 urte zituela joan zen Parisa eta han antzerkiari lotutako unibertsitate ikasketak egin zituen. Geroztik, ibilbide benetan oparoa du egina antzerkigintzan.



Ruth Olaizola Sanchez Parisen lan egiten duen antzerkigilea da. OLAIZOLA

Antzerkiaren munduan ibilbide oparoa egin du 17 urte zituela Hernanitik, jaioterritik, Parisa egin zuenetik. 25 urte baino gehiago daramatza Joël Pommeratek sortutako Louis Brouillard antzerki konpainian lanean eta hori epe luzea da sektorean. «Ez da ohikoa izaten hainbeste urtez jarraian konpainia berean eta zuzendari berarekin aritzea. Beste jende batekin ere lan egin izan dut, baina nagusiki Pommeratekin aritu naiz».

Hernaniko Langile ikastolan deskubritu zuen antzerkia. Ikastola horretako lehen belaunaldietakoa da Ruth Olaizola eta horrek, era batera edo bestera, bizitzan egin duen bidean arrastoa izan duela sentitzen du. «Ez dakit zehatz esaten zertan, baina Langileko ikasle izateak markatu egin nau. Familia bat bezalakoa ginen eta niretzat urte ahaztezinak dira umetako haiek. Orain, denboraren joanean, garbi esan dezaket abentura zoragarri hartan parte hartze ko zortea izan nuela».

Antzerkia, poesia... hasi berria zen ikastola hartan sorkuntzarako tartea zutela gogoratzen du Olaizolak. «Gogoan dut nire lehen poema, Andaluziari oda bat, nire amaren omenez. Antzerkia egitea ere naturala zen guretzat ikastolan. Espazio ludiko eta sortzailer garrantzitsua izan zen», nabarmendu du.

«Inoiz ez diot neure buruari galdetu zergatik egiten dudan

antzerkia, edo zer suposatzen duen niretzat, agian bokazioak ez direlako azaltzen. Duela ez asko, Ixiar Eigurenekin, nire lehen andereñoarekin –betidanik asko maite izan dudanarekin– hizketan ari nintzela, galdetu zidan ea zer suposatzen zuen antzerkiak niretzat. Pentsatu egin behar izan nuen. ‘Askatasuna’, erantzun nion. Bai, uste dut talde lanerako askatasun gune bat dela; kolektiboa dena gustatzen zait, sorkuntza artistikoa, eta istorioak kontatzea. Ikusleei amets eginaraztea, haiekin mundu desberdinetan zehar bidaiatzea, obra desberdinekin».

HERNANITIK PARISA

17 urte zituela, Hernanitik Parisa egin zuen familiarekin. «Ez dut askotan hitz egiten aldaketa horretaz. Garai zail samarra izan zen, eta antzerkiak asko lagundu zidan garai hartan. Aita eta ahizpa txikia Parisen zeuden, eta haiekin bizitzera joatea erabaki nuen. Erabaki zaila izan zen, baina niri gailendu zitzaidan», gogoratu du.

Lagunartea eta bizigunea asko aldatu zitzaizkion. «Parisen hiriaren handitasuna aurkitu nuen, alde kosmopolita, kultura, unibertsitatea eta antzerkia egiteko beste modu batzuk. Paris hiri gogorra da –hiri handi guztiak bezala– eta aldi berean liluragarria... Ordurako niretzat antzerkia egitea naturala zen. Baina unibertsitatara joan eta karrera bat egitea nuen buruan, beraz, antzerkia albo batera geratu zitekeen. Eta hara non jakin nuen Pari-



Goiko argazkietan, Hernaniko Langile ikastolako ikaskideekin egindako irteera zenbait. Maitasun handiz gogoratzen ditu haurtzaroko uneak. OLAIZOLA

sen antzerkiaren inguruko karrerara bat zegoela. Hantxe eman nuen izena».

Lehenengo Sorbona Berria Unibertsitatean egin zituen ikasketak eta gero, doktoretza, Gizarte Zientzietako Goi Mailako Ikasketen Eskolan (EHES). «Unibertsitatean antzerki ikasketak nahiko berriak ziren, nahasketa handia zegoen, jende gaztearen eta helduagoaren artean, antzerkian mugitzen zen jendearen artean, frantsesen artean eta baita atzerritarren artean ere. EHESn, sartzen zarenean ikertzaile gisa tratatzen zaituzte, ez ikasle gisa, eta hura oso atsegina eta hezitzailea izan zen», gogoratu du Olaizolak.

Doktorego tesia osatzeko gai berezia aukeratu zuen: Elizaren eta antzerkiaren arteko harremana. «Nire ibilbidean tesia bigarren mailakoa izan da, nik aktore gisa egin dudalako beti lan eta tesia aktore

bezala garatzeko modu bat zen. Izan ere, ez naiz irakas-kuntzan aritu. Nire tesia aktoreari buruzkoa da. Izugarri gustatu zitzaidan gai bat aurkitu nuen: Elizaren eta antzerkiaren arteko harremana. XVII. mendeko jesuiten gaiari heldu nion, haiek ere antzerkia gaitzetsi zutelako eta, aldi berean, antzerkia praktikatu eta garatu zutelako, beren eskoletan, eszenaratze garrantzitsuekin; antzerki didaktiko eta erlijiosoa zen. Nire lana izan zen zehaztea antzerkigintza nola eta zergatik izan daitekeen ona edo txarra erlijioaren ikuspegitik, zergatik kondenatzen den aktore profesionala (batez ere emakumea denean) eta horrek dakarren irakurketa politikoa».

Aurretik aipatu bezala, 1994an Joël Pommeratekin egin zuen topo bidean eta horrek markatu du neurri handi batean bere ibilbide profesio-

«Niretzat antzerkia askatasuna da. Uste dut talde lanerako askatasun gune bat dela; kolektiboa dena gustatzen zait, sorkuntza artistikoa, eta istorioak kontatzea»

«Unibertsitatean antzerki ikasketak nahiko berriak ziren; nahasketa handia zegoen, jende gaztearen eta helduagoaren artean, antzerkian mugitzen zen jendearen artean...»

nala antzerkian. «Nire lehen ikuskizun profesionala 1995ean izan zen berarekin, nahiz eta 1994an ezagutu genuen elkar. Ni arte dramatiko-ko eskolan nengoen (unibertsitatearekin batera) eta berak aktore gazteak bilatzen zituen. Probara aurkeztu nintzen eta horren ondorioz hasi ginen elkarrekin lanean. Lan-kidetza luzea izan da. Hasieratik eta urte askoan, pertsona talde berarekin aritu naiz lanean».

Pommeratek “Pinotxo”, “Errauskine” edo “Txanogorritxo” bezalako ipuin klasikoak berridatzi eta eszenatokira eramanez, bere esanetan, istorioa berriro kontatu nahi zuelako. Ahalik eta modurik «sinple eta zehatzenean», ipuin horietan lantzen diren gaiak belaunaldi batetik bestera igarotzeko zubia izan dira Pommeraten lanak; hazteko nahia eta beldurra, bakardadea... «Nik ez dut haurrentzako obretan parte hartu, berak



muntatu ditu gu beste lane-kin biran ari ginen bitartean. Une honetan, artistikoki kolaboratzen dut talde horiekin, zuzentzen eta biran laguntzen. Uda honetan ‘Errauskine’ obra Parisko Porte Saint Martin antzokian eskaini dugu, 60 emanaldi guztira. Hiru lan gaztelerara itzuli ditu. Azkena, ‘Contes et légendes’, Madrilen eskaini dute uda honetan. Konpainia handituz joan da pixkanaka, eta orain hainbat taldek osatzen dute, bete-

ranoen eta berrien artean. Pertsona askok egiten dute lan urte osoan. Eta, aldi berean, egitura txiki bat izaten jarraitzen du. Artisautza pixka bat dago gauzak egiteko moduan», azaldu du Olaizolak.

SORKUNTZA, BERTATIK BERTARA

Pommeratek bere obrak bere aktoreentzat idazten eta muntatzen ditu. «Lan egiteko modua nahiko originala da, aktore gisa nire pertsonaien jaiotza eta sorkuntza bertatik

«Pommeraten lan egiteko modua nahiko originala da, aktore gisa nire pertsonaien jaiotza eta sorkuntza bertatik bertara ikusten baitut. Eta baita obrarena ere»

«Euskal Herrira joaten nireen maitasuna bilatzen dut, euskara, itsasoa, mendia, lurra. Lehen aitona eta amona zeuden, asko maite izan ditudanak, orain fisikoki ez daude...»

bertara ikusten baitut. Eta baita obrarena ere. Berak entseatzen dugun aldi berean idazten du obra, eta entseguen hasieratik denok gaude bertan eta eszenan: aktoreak, argiak sortuko dituen eta eszenografoa, soinuarena, jantziena, teknikariak... Pommeratekin entseatzea eta lan egitea lanari eta nire aktore lanari buruzko hausnarketan bete-betean parte hartzea da. Gehienetan, idazten dizkigun paperak neurrira egindakoak dira. Denbora honetan guztian obraz obra, sorkuntzaz sorkuntza, pertsonaia batetik bestera nabigatu ahal izan dut. Urte askoan bizi diren obrak dira, gainera», azaldu du sorkuntza prozesuaren magia.

Esan bezala, bide luzeko lanak dira. Adibidez, “Txanogorritxo” lana duela 17 urte sortua da eta martxan da oraindik. Eta Frantziako Iraul-

tzari buruzko “Ça IRA” antzerki obrarekin sei urte baino gehiago daramate. «Izan dira lau obrarekin batera biran joaten ginen garaiak. Aipatutako ‘Ça IRA’ obra arrasto sakona uzten ari da Frantziako antzerkigintzan. Orain lan horretatik abiatuta film bat egiteko proiektua ere badago eta gurekin kontatzen dute».


Urte asko daramatza Ruth Olaizolak Euskal Herritik urrun, baina ahal duen guztietan gerturatzen da Hernanira, pertsona bezala eta antzerkigile bezala abiatzen ikusi zuen herrira. «Nireen maitasuna bilatzen dut, euskara, itsasoa, mendia, lurra. Lehen aitona eta amona zeuden, asko maite izan ditudanak, orain fisikoki ez daude, baina han jarraitzen dute...». •

LUR AZPIKO ABENTURAK



Amaia
Ballesteros

iRRITZIA:



{ profila }

ANNEMIEK VAN VLEUTEN ETA MARIANNE VOS

Herbeheretar beteranoak nagusi sustraietara itzuli den Tourrean


Gizonezkoetan ez bezala, emakumezkoen errepideko txirrindularitzan beteranoek jarraitzen dute agintzen. Eta horren adibide onena da Annemiek Van Vleuten eta Marianne Vos herbeheretarrek Tourrean erakutsi duten nagusitasuna. Van Vleutenek 39 urte ditu, Vosek 35, eta hamarkada bat baino gehiago daramate tropel profesionalean garaipenak lortzen.

Urte berezia izan da aurtengoa emakumezkoen errepideko txirrindularitzan, 2009an azkenekoz korritu zenetik lehen aldiz Tourrak ohiko etapakako lasterketa “luzea” berreskuratu duelako. Azken urteotan Giroak merezimenduz irabazita zeukan “Urteko etapakako lasterketa garrantzitsue-na” etiketa Tourrak berreskuratu duela esan liteke. Eta txapela kentzekoa izan da Van Vleutenek eta Vosek emandako ikuskizuna.

Laburbilduz, Van Vleutenek bi etapa eta sailkapen nagusia irabazi ditu eta Marianne Vosek beste bi etapa eta puntuen maillot berdea (maillot horia ere jantzi du hainbat egunetan). Baina garaipen kopurutik haratago, garaipen horiek lortzeko modua izan da zaleak txundituta utzi dituen.

Van Vleuten apenas agertu zen lasterketan azken-aurreko etapan mendia iritsi zen arte. Sabeleko minez ibili zen, antza birusen batek eragina. Baina Selestat eta Le Markstein arteko etapan 86 kilometroren faltan jo zuen eraso, azken 60 kilometroak bakarrik egin zituen, eta helmugan sekulako aldeak ateratu zituen: hiru minutu eta erdi bigarrenari, bost baino gehiago hirugarrenari... Azken etapan ere bera izan zen irabazlea, tropeleko igotzaile onena dela erakutsiz eta Giroan lortu zuen garaipenari Tourrekoa gehituz.

Marianne Vosen kasuan, bigarren eta seigarren etapak irabazi zituen, bi bigarren postu eta hirugarren bat ere sina-



Marianne Vos, irribarretsu, Tourreko etapa baten osteko sari-banaketa ekitaldian.
Jeff PACHOUD | AFP PHOTO

tu zituen, eta maillot horia jantzita eramane zuen bigarren etapatik zazpi-garreneara bitartean. Eta datu bezala nabarmendua izan da Tourrean lortu zuen bigarren hori bere ibilbideko 242. garaipena izan zela. Ikaragarria.

GAZTE-GAZTETATIK, MODALITATE GUZTITAN

Marianne Vos (Bolduque, 1987) gazte-gaztetatik hasi zen bere dohainen berri ematen. Junior mailan emaitza bikainak lortu ostean, esan daiteke 2006an eman zuela benetan elite mailara jauzia eta lehen urte horretan, oraindik 20 urte bete gabe, jada sekulako balentria erdietsi zuen: munduko txapeldun izan zen urte berean ziklo-krosean nahiz errepidean.

Hortik aurrera, bere garaipen zerrenda etengabe puze joan da herbeheretarra, modalitate desberdinetan moldatzeko sekulako gaitasuna erakutsiz, gainera. Errepidean beste bi Munduko Txapelketa (2012 eta 2013) eta Londresko Olinpiar Jokoetan irabazitako urrea (2012) izan daitezke agian garaipen deigarrienak, baina hori bezain aipagarria da urte askoan bera izan dela denboraldiko izar nagusia: bost aldiz irabazi zuen Munduko Kopa, bost aldiz Fleche Walonne klasikoa, hiru aldiz Giroa 32 etapa garaipenekin...

Hori gutxi ez eta ziklo-krosean nahiz pistan ere palmares bikaina du. Batez ere ziklo-krosa izan da bere modalitate kuttuna: zortzi aldiz izan da munduko txapeldun, lehenengoz 2006an, azkenekoz aurtengoan, 16 urte beranduago, eta tartean 2009 eta 2014 artean sei urte kolkoratu zituen jarraian. Pistan ere badu urrezko olinpiar domina bat, 2008an Pekinen irabazia, eta munduko txapeldun izana da bi aldiz.

Hainbat urtez erakutsitako nagusitasunak bere buruari erronka berriak jartzera eramane izan du Vos behin baino gehiagotan. 2016an, adibidez, Olinpiar Jokoetan mendiko bizikletan parte hartu nahi izan zuen hiru modalitate desberdinetan urrea irabazten saiatzeko, baina saiakera ez zitzaion nahi bezala irten eta 2014an erritmoa apur bat jais-tea erabaki zuen nekeak jota.

Erronka horien barruan sar liteke Vosek emakumezkoen Tourrak egutegian merezi duen lekua izan dezan egindako borroka. Ez da ahaztu behar bera izan dela, Ane Santesteban euskaldunarekin batera, 2009an Tourra etapakako lasterketa moduan azkenekoz korritu zenean parte hartu zuen ziklista bakarra aurtengo ekitaldian, eta berak irabazi zuela 2014an Tourrak emakumezkoentzat antolatu zuen egun bakarreko La Course lasterketa.

«Orain dela bederatzi urte ASOrekin emakumezkoen lasterketa bat antola-



Annemiek Van Vleuten, maillot horiarekin Tourreko garaipena ospatzen.

Jeff PACHOUD | AFP PHOTO

A. VAN VLEUTEN

1982ko urriaren 8an jaio zen Utrecht (39 urte). Movistar taldean dabil eta bere garaipenen artean Tokioko urre olinpikoa (erlojupekoan), hiru Munduko Txapelketa (bi erlojupekoan eta bat iraupen proban), hiru Giro eta aurtengo Tourra nabarmendu daitezke, beste askoren artean.

M. VOS 1987ko maiatzaren 13an jaio zen Boldunquen (35 urte). Jumbo taldean korritzen du eta bere palmaresean bi domina olinpiko (errepidean eta pistan), 11 Munduko Txapelketa (errepidean eta ziklo-krosean) edo hiru Giro ageri dira, beste hainbaten alboan.

tzeko hitz egiten ibili ginenean, dena oso azkar egin zen La Course martxan ipintzeko. Urte hura garrantzitsua izan zen, eta aurtengoa beste mugarri bat da», adierazi du egunotan herbehere-tarrak, umetan gurasoekin Tourra ikustera autokarabanan joaten zela gogoratzearekin batera.

LEHERKETA BERANTIARRA

Annemiek Van Vleuten (Utrecht, 1982) herrikidearen bilakaera oso desberdina izan da. Beranduago egin zuen debuta profesional mailan, beranduago lortu zituen bere lehen garaipenak eta, batez ere, bere ahalmenaren benetako eztanda azken urteetan iritsi da, jada adinean aurrera joan denean.

Zoologia ikasketak egin, zoonosi eta epidemiologian espezializatua, gaur egun Movistar taldean korritzen duen txirrindulariak lesio eta eroriko larriei egin behar izan die aurre bere ibilbidean. Rioko 2016ko Jokoetan, esaterako, sekulako erorikoa izan zuen Vista Chinesa jaisten, lasterketa buruan zihoan urrearen bila. Hiru bertebera hautsi zituen. Eta 2020an Giroan lider zela ere eroriko larria izan zuen, lasterketa utzi eta urte hartako Munduko Txapelketa ere galduz.

2007an korritu zituen lehen lasterketak profesionalekin, 25 bat urterekin, eta lehen garaipenak 2010ean lortu zituen. Garai horretan klasikoak ziren bere helburu nagusia eta 2011n Flan-

driako Itzulia eta Munduko Kopa bereganatu zituen. Hortik aurrera bere burua erakusten hasi zen lasterketa nagusietan, baina erabat lehertu gabe.

Eztanda hori 2017an iritsi zela esan daiteke, 35 urte bete zituen urtean. Giroan bi etapa eta mendiko nahiz puntuetako maillota, La Course, Munduko Erlojupeko Txapelketa... Sekulako denboraldia sinatu zuen eta segida eman dio azken urteotan.

Iaz erretiroa hartu zuen Anna van der Breggenekin –SD Worx taldeko zuzendari lanetan ikusi dugu aurtengo Tourra– borroka gogoangarriak izan zituen urte horietan eta zenbaitetan galtzea tokatu zitzaion arren, irabazita-koak ere ez dira gutxi izan: Tokioko Jo-

koetan urrea erlojupekoan eta zilarra iraupen proban, bi Giro, Flandria beste behin, Strade, Lieja, Vuelta...

Egunotan France Press agentziak argitaratu duen erreportaje batean tropeleko zenbait zuzendari eta txirrindularik Van Vleutenen nagusitasuna ulertzeko zenbait gako eman dituzte. «Mina eta sufrimendua beste inork baino hobeto jasaten du. Horrelako esfortzuak egiten ikusten dugunean, muturreko sufrimendua jasateko gaitasun psikologikoa duelako da gaitasun fisikoa baino gehiago», irizten dio adibidez Grace Brownek, Mitchelton-Scott taldean kide izan zuen australiarak.

Aude Biannic Movistarreko taldekide frantziarrak, aldiz, bere lanerako jarra nabarmentzen du. «Urte erdia altueran igarotzen du, ehuneko ehun bizikletarako bizi da. Giroaren ondoren gu egun batzuk etxekoekin egotera joan ginen eta bera bakar-bakarrik Livignora itzuli zen, altuerara. Neguan gizonen taldearekin entrenatzera irte-ten da eta gai da asteen 25 edo 30 entrenamendu ordu pilatzeko, guk normalean 20 bat egiten ditugunean», kontatu du Biannicek.

EUSKAL HERRIAN ERE BAI

Beraien maila Euskal Herriko errepideetan ere eman izan dute bi izar handi hauek. Marianne Vosek, esaterako, bi aldiz irabazi zuen Emakumeen Bira, guztira 14 etapa garaipen lortuta, eta lau aldiz bereganatu zuen Durangoko Saria. Van Vleutenek lau etapa irabazi zituen Biran, Durangon behin altxatu ditu besoak, Nafarroako Klasiko desberdinetan hiru aldiz izan da txapel-dun eta 2021ean Donostiako Klasikoa irabazi zuen erakustaldia emanda.

Hain zuzen ere, iaiztik egitura Nafarroan duen Movistar taldean korritzen du Van Vleutenek. Emakumezkoen txirrindularitzan tradizio handirik gabea, Movistarrek talde gazte baten lidergoa eskaini zion izar herbeheretarrari eta badirudi gozatzen ari dela erronkarekin. Bere hitzek, irribarreak eta emaitzek halaxe erakusten dute.



Gorka Zozaia - @zotz_
Kimikaria

Ziztadek beldurra inokula ez dezaten

Ziztadak izaten ari dira **uda honetan emakumeak kale eta gauetatik aldentzeko enegarren mehatxu matxista**. Lerro hauek idazterakoan hamabi ziztada berri identifikatu dira Euskal Herriko jaigune hainbatetan, lehenago Iruñean eta aurretik Europako beste herrialde batzuetan ere gertatu den eran. Fenomeno arraroa da, ehunka kasuetan patroi antzekoa baitago: biktimei ez zaie odolean hartu ez duten drogarik topatzen, ziztada jaso dutenek ez dute bortxaketa edo lapurretarik pairatzen eta ez da erasotzailerik identifikatzen. Sumisio kimikoa eragiteko ezagun egin den eskopolamina edo “burundanga” drogaren kasuan, baina, ziztada bidez intoxikazioa eragiteko lehenik ongi ziztatzen jakin egin behar da eta gero segundo batzuetan zehar txertatu beharko litzateke substantzia, eta hori ez dator bat salatzen ari den ziztada motarekin. Gainera, zabaldua den us-tearen kontra, droga honen arrastoak antzematea ez ei da horren zaila, egun batzuetan gelditu ahal baita organismoan.

Izan liteke, halaber, beste toxiko ezezagun bat erabiltzen aritzea, gorputzetik berehala desagertu eta berehala inokulatu ahal dena. Keta-mina edo intsulina erabiltzen ari ote den espekulatzen ari dira, antzerako zorabio eragina eragin ahal baitute, baina hipotesi horretan ere, arraroa da nola salatzen diren kasu guztietan biktimek ez duten erasorik edo lapurretarik pairatu. Ikuspegi toxikologikotik baino gehiago, ikuspegi kriminologikotik, ez dirudi sumisio kimikoa eragin nahi duen erasotzailearentzat ziztada bide diskretu eta eraginkorrena denik. Ezin da, jakina, bide

hau erabili izana baztertu, baina probableena dirudi salatu diren ehunka kasuetatik gehienetan ziztadaren jatorria ausazkoa izatea eta sorturiko alarma egoerak biktimak sugestionatu izana. Baita ere gerta liteke emakumeak beldurtzeko asmoarekin eufemistikoki “ganberro” deitu diren gizon ankerrak izua zabaltzen aritzea.

Guztiarekin, kuestionagarria ez da salaketa bera. Are, salaketa guztiok alarma piztu eta kaleak eta gauak espazio seguruak izateko bide eman behar dute. Baina era berean, ziztada bidezko sumisio kimikoaren praktika orokortua ez dela baieztatuz gero, biziki garrantzitsua da berau

baldintzatzea, beldurraren bidezko emakumearen kontrolari aurre egin nahi badiogu. Emakumeak bortxatzeko bide eraginkorra ez dirudiena hauek beldurtzeko oso bide eraginkorra dela ikusten ari baikara. Arreta erasotzailearengan jarri ordez metodologian ari gara zentratzen, eta ahanzten sumisio kimikoaren eragile zabalduena alkohola bera dela. Gizonak gara emakumeei erasotzen diegunak, eta guri dagokigu gure maskulinitatearen aztarnak deserrotzeko lana, indibidualki, baina batez ere kolektiboki. Jaiak eta gauak emakumeentzat espazio seguruak ez badira, gerra gaitezen gizonak etxean, eta egin ditzagun gure etxerako lanak! •



Ziztadak, enegarren mehatxu matxista.

GMAT3R | GETTY IMAGES

{ koaderno } Itzea Urkizu Arsuaga

Zainetara

Hirugarren udaldia dugu hemen oporretan. Konfinamendu osteko udak hilabete haurrarekin harrapatu gintuen eta, geroztik, dela pandemia, dela erosotasuna, gariak, oloak eta mahastiek edertutako parajeotan egin izan dugu udaldi-ko erretiroa. Eguzkia egunez, freskura gauez eta ordu eta erdi baino ez errepidean, gure mundu honen oldarkortasuna performatzen dugun oihan basati horretan: «Nik horra iritsi behar dut eta, horretarako zure ordu erdiko itxaronaldia zapaldu behar baldin badut, zapaldu egingo dut; edo, behintzat, nire autoaren muturra erakutsiko dizut, aurrera zaitzakedala eta bolantean urduri sentiaraziko zaitudala jakin dezazun». Klasiko bat.

Honezkero zortzigarren herrialde bilakatu dugun honetakoa bizpahiru egunerako baino asetzen ez ninduen plana zen, eta akuilu eta itxaropen zait orain, ikasturtean zehar soka lepoan ibiltzen naizen momentuetan, arnasa luze hartzeko. Beste mila gauza-
ren artean, horixe izaten ari baita amatasuna nigan: uko egin, lehenesteko. Uko egin penintsulako edo kontinenteko edo munduko txoko batzuk ezagutzeari, orain behar dugun konfort eremu zoragarri honen alde. Sare sozialek antipodetan dabilTZan lagun^{en} argazki betekada eskaintzen didaten arren, oporleku paradisiako edo exotiko edo dekadente horietara joateko ustezko gogoak eta beharrak telefonoaren aurrean kritiko bezain bekaizti kokatzen nauten artean.

Edo, uko egin duela hiru uda korrika ibiltzen nuen erritmo hari, haurrak sortzen dituzten gizonezkoek beren kirol markak saldoan nola hobetzen dituzten normaltasun harrigarri ikusten dugun bitartean. Eta neronek irentsi ni naizela saldu diguten gezur handi horretako piezak modu desegokian kokatu dituen; hala ez balitz, iritsi beharko nuke lanera, zaintzara,

militantziara, plazerera eta kirolera. Eta, beraz, irakurri ahalko nuke nire gorputza amatu ondoren amatu izan ez balitz bezala zizelkatu duen emakume baten gorputza balitz bezala. Gure haragia, giharrak, gantza eta bihurguneak gure sentitzeko beldurra zainetan egunero sartuko ez baligute bezala.

Ziztadena kontu berria balitz bezala. Emakumeok egiten eta, are, pentsatzen dugun guztia aurrez digeritutako beldur baten ondorioz egingo eta pentsatuko ez bagenu bezala. Gauez etxerako taxia ordaindu ahal izateko azken bi tragoak hartu gabe urteak pasatzea mekanismo beraren pieza ez balitz bezala. Kasualitatea balitz bezala, gure desioa eta sexu grina bizitzeko eta adierazteko moduak gure ahalduentze politikoare-

Xiringa aurtengo udako kantua da, baina aspaldikoak dira erritmoak, eta kezkagarriena zera da: mass media, sare sozialak, Whatsapp taldeak, terrazetako solasaldiak eta hamaka elkarrizketak kantu horren erritmora dantzan ari direla.

kin oraindik ere inkoherente izatea. Xiringena aspaldi betikotutako kontu baten errepide azkarra ez balitz bezala: «Nik larrua jo nahi dut eta, horretarako bortxatu behar baldin bazaitut, bortxatuko zaitut; edo, behintzat, nire xiringa erakutsiko dizut, zakilarekin egin nahiko nizukeenaren aperitibo gisa, bortxa zaitzakedala jakin dezazun». Klasiko bat.

Xiringa aurtengo udako kantua da, baina aspaldikoak dira erritmoak, eta kezkagarriena zera da: mass media, sare sozialak, Whatsapp taldeak, terrazetako solasaldiak eta hamaka elkarrizketak kantu horren erritmora dantzan ari direla. Berriz ere beldurra dela zainetara sartu digutena.



PANTAILA TXIKIAN

Gaizka Izagirre Brosa

Sagar hozkatuaren urtea

2020-2021 urte bitartean, ekoizpen kopurua handitzea- rekin batera kalitatean ere au- rrerapausoak nabari zitezkeela aitortu behar dut. Aurtengoa, ordea, plataforma sortu zene- tik urterik onena dela esango nuke; are gehiago, 2022an es- treinatu diren telesail guztien artetik, onenak, beraiek estre- inatu dituzte. Adi honako izen- buruei:

Black Bird

(6 atal)

“Mindhunter” edo “True De- tective” telesailen erako pro- posamenak gustuko baditu- zue, adi honi. Telesaila osatzen duten osagarriekin hasiko naiz. Gidoilaria: Dennis Leha- ne; bere eleberriak sarritan egokitu dituzte eta arrakasta handiko filmak izan dira –“Mystic River”, “Gone Baby Gone”, “The Drop” edo “Shutter Island”, besteak bes- te–. Soinu banda: Mogwai tal- de eskoziarrak konposatua. Aktore zerrendan izen ezagu- nak: Taron Egerton, Greg Kin- near eta erne, Ray Liotta, hil aurretik egin zuen azken lane- tariko bat. Generoa: thrillerra eta kartzelako drama. Zer gehiago behar duzue? Premi- sarekin jarraituko dut, zentzu- gabea dirudien arren, beneta- ko gertaeretan oinarritzen den telesaila baita hau. Jimmy Kee- ne (Taron Egerton) droga trafi- katzaileari hamar urteko kar- tzela zigorra ezarri diote; kartzelan sartu eta hilabete gutxira, ordea, bi aukera pro- posatuko dizkiote: bata, dago- en tokian jarraitu eta hamar urteak oso-osorik betetzea.

Sagar hozkatuaren plataforma, Apple TV+ alegia, 2019ko azaroaren 1 ean jarri zen martxan. Lehen urte horietan, erdipurdiko ekoizpenak egiteaz gain, norabi- de finkorik gabe nabigatzen ari ziren sentsazioa trans- mititzen zuten une oro. Izen ospetsuak agertzen ziren proiektuak aurkezten, baina funtsean oinarri sendorik gabeko izenburuak sortzen zituzten. Hiru urteren ostean gauzak hainbeste aldatu dira, ezen une hone- tan, kalitateari dagokionez behintzat, beren lehiakide askoren aurretik kokatuko nituzkeen.

bestea, aske utziko dute baldin eta segurtasun goreneko espe- txe batean sartu eta Larry Hall ustezko serieko hiltzailearen lagun egiten bada. Zertarako? Hainbat hilketa aitortzea lor- tzeaz gain, neska batzuen gor- puak non lurperatu dituen ja- kiteko. Generoaren ezaugarri den polizia ikerketa ere topa- tuko duzu jakina, baina thril- ler horietako bat da, Dehanek zehaztasun milimetrikoz ida-

tzitako elkarrizketetan oinarri- tzen dena. Telesailaren zimen- duak Jimmy eta Larryren arte- ko elkarrizketetan ezartzen dira –hemen “Mindhunter” te- lesail bikainarekin gogoratzea saihetsezina da– eta bien arte- ko harremana katuaren eta sa- guaren arteko jokoa bilakatu den arren, bietako batek baka- rrik daki jolasten ari direla.

Prehistoric Planet

(5 atal)

Dinosauroen mundua maite baduzu, adi honi. Zerrendako dokumental bakarra da, baina sartu egin behar izan dut, hain iruditu zait berezia. Tira, doku- mental hutsa baino gehiago, dinosauriei buruzko fikziozko telesail dokumentala dela esa- tea zehatzagoa iruditzen zait. David Attenborough narra- tzaile dela –naturari buruzko zientzia dibulgatzaile handie- netarikoa–, BBC Studios Natu- ral History Unit-ek ekoitzia eta Hans Zimmer maisuaren soi- nu bandaren laguntzaz 66 mi- lioi urte atzera eramango gai- tu –Kretazeora alegia–, lan ikusgarri honek, bost habitat ezagutzero: “Kostaldeak”, “Ba- samortuak”, “Ur geza”, “Mundu izoztuak” eta “Basoak”. Tekno- logiaren eta efektu berezi foto- errealisten laguntzaz, erreali- tatearen mugak lausotzea lortzen duen lana da, aho za- balik uzteko modukoa.

For All Mankind

(3 denboraldi, bakoitzak 10 atal)

Gerra Hotza Ilargian. Horrela laburbilduko nuke telesail ho-



nen mamia. Istorioa errealtate alternatibo batean hasten da garatzen, non sobietarrek Ilargira iristeko lasterketa amerikarrei irabazten dieten. Ukronia batean kokatzen gaituela esan daiteke, beraz. Gertaera zehatz hori salbu, 70eko hamarkadako unibertsoa gure bera da, baina hortik aurrera tximeleta efektua bailitzan dibernitzen hasiko da, gertaera jakin horrek ondorengo hamarkadaka guztiak betiko aldatuko dituen arte. Arrazaren araberrako bereizketa, emakumearen gutxiespena, homosexualen jazarpena eta Gerra Hotzaren paranoia ere erakusten ditu. Aitzakiaren bat jarri beharko banio, ikuspegi “amerikarregia” duela esango nuke. Aurten 3. denboraldia estreinatu dute, eta 4.a ere egongo dela baieztatu dute.

Slow Horses

(6 atal)

Atal bakoitza “Strange Game” (joko arraroa) izeneko abestia- rekin hasi eta amaitzen da, Mick Jaggerrek telesailerako bereziki konposatu eta historiaren espirituarekin bat egiten duen sintonia itsaskorra. Espirituarekin eta, jakina, gerora ikusi dugun tonuarekin eta giroarekin bat egiten lagunduko diguna. Slough House –Zingirako etxea– Londresko kale ilunenetan ezkutatuta dagoen bulego baten izena da. Ezkutatuta, MI5ekoa delako (barne segurtasunaz ardurtzen den Erresuma Batuko inteligentzia zerbitzua), eta «zingira» ezizena, bertako langileak aurreko misioetan porrot egin zuten agenteak dirrelako, lehen mailako eginkizunetatik baztertuak izan di-



Apple TV+ plataformak kalitatezko proposamenak aurkeztu ditu aurten.



ren agenteak, egoera prekarioan ari direnak. Taldearen burua Jackson Lamb dugu, itxura kaskarrekoa, zikina, jasanezina, alkoholikoa, manipulatzailer, baina baita gupidagabea eta oso eraginkorra ere, Gary Oldmanek maisuki gorpuzten duena. Talde supremazista bategazte pakistandar bat bahitzen duen unean hankaz gora jarriko du Zingira eta noski Britainia Handiko inteligentzia zerbitzua. Hortik aurrera, akziozko espioitza thrillerren osagarriak erabiliz eta ironia zein umore beltz pintzelkadak, katu eta saguaren jokoan murgiltzen gaituen telesail adiktibo batean barneratuko zara.

Severance

(9 atal)

Aurten gehien harritu nauen proposamena eta guztietatik biribilena eta originalena zalantza, izpirik gabe. “Black Mirror” eta “The Office” telesailen elementuak koktel ontzi batean sartuko bagenitu, “Severance”-ren tankerako zer-bait aterako litzateke. Lehena, gaiarengatik eta zabaldu nahi den gizarte kritikarengatik. Bizitzeko lan egin ala lan egiteko bizi? Bigarrena, aldiz, agerikoa, ofizina batean girotzen delako, enpresa batean, eta umore dosi txikiak badituelako –“The Office” askoz ere dibertigarriagoa da, jakina, honakoa ez delako umorezko telesaila, gehiago baitu thriller psikologikotik. Mark Scout-ek lantalde bat zuzentzen du Lumon Industries deituriko enpresan. Bertako langileak prozedura kirurgiko baten eraginpean daude –printzipioz beren borondatez–, zeinaren eraginez beraien oroitz-



penek lan eremua eta bizitza pertsonala guztiz bereizten duten. Alegia, lanean dauden birtartean ez dutela bizitza pertsonaleko ezer oroitzen, ezertxo ere ez; ez dakite non bizi diren, familiarik duten ala ez edo zoriontsu ala triste bizi diren, esaterako. Laneko atepak gurutzatu eta bizitza pertsonalera bueltatzen direnean, aldiz, alderantzizkoa gertatzen da. Badakite fisikoki non egiten duten lan, jakina, beraiek hala nahi dutelako baitoaz bertara, baina ez dakite zer lan mota egiten duten, zeintzuk diren lankideak, lana gorroto duten ala ez eta abar. Lanaren eta bizitza pertsonalaren arteko oreka makabro eta harrigarri honetan kokatzen den esperimentu ausart hau zalan-tzan jartzen hasten den unean, ordea, Mark misterioz beteriko espiral batean murgilduko da. Gai eta istorio original honi, gainera, Ben Stillerrek maisuki zuzentzen duen lehen mailako aktore zerrenda gehitu behar zaio: Adam Scott, Patricia Arquette, Dichen Lachman, John Turturro eta Christopher Walken, besteak beste. Estetikoki ere txundigarria iruditu zait. Erakargarritasun nagusietako bat Stillerrek mikromundu bat sortzea lortu duela da. Depar-

tamentu bakoitza ekosistema propioa da, eta bertan barne-iraultzak, liskarrak eta ustekabeko adiskidetasunak ere gertatzen dira. Guztia da hain aseptikoa, hain txukuna, hain garbia, hain zuria, baina era berean jariatzen duen lurrina hain dago faltsukeriaz bete-a eta hain da artifizia-la, non ikusle gisa oso deseroso sentiarazten zaituen, aztoragarria izateraino. Lagunartean eta familian eztabaidak piztuko dituen harribitxia.

Shining Girls

(8 atal)

Serieko hiltzaileei buruzko ikerketa telesail asko daude. Baita zientzia-fikziozko edo fantasiazkoak ere, non denboraren eta pertzepzioaren kontzeptuarekin jolasten duten. Bi gai eta generoak hemen bezala uztartzen dituenik, ordea, gutxi ezagutzen ditut; “Zodiac” eta “Dark”-en arteko zerbait irudika ezazu, eta emaitza “Shining Girls” izan liteke. Kirby Mazrachi da protagonista (Elizabeth Moss). Chicagoko egunkari bateko artxibozaina, kazetari bihurtzeko ametsa bertan behera uzten duena, orain urte batzuk, ezezagun

batengandik jasan zuen eraso basati baten ondorioz, ondorio psikologiko larriak utzi dizkiola. Kirbyk jakiten duenean duela gutxiko hilketa batek bere erasoarekin lotura izan dezakeela, Dan Velazquez (Wagner Moura) kazetariarekin bat egingo du erasotzailea aurkitzeko. Krimenen mundu iluna gustuko baduzu baina zerbait desberdina ikusteko gogoz bazabiltza telesail hau aukeratu.

Pachinko

(8 atal)

“Pachinko”-ren istorioak XX. mendean zehar mugitzen gaitu Koreak Japoniaren inbasioan bizi izan zuen errealitatearen zati bat ezagutarazteko. Sunjaren begietatik egiten du bidaia hori, 1920ko hamarkadan hasi eta 1989ra arte. Testuingurua hain zabal-izanda ere, tonua nahiko intimista da. Debekatutako maitasun batekin hasten den istorio epiko eta intimoa kontatzen du, Korearen, Japoniaren eta Ameriketako Estatu Batuen artean bidaiatzen duen kontakizun bihurtu arte; gerra eta bakea, maitasun eta galera... era guztietako osagarriak topatuko dituzu telesail honetan.

Hau guztia oso interesgarria izanik ere –are gehiago gertaera historiko horien inguruan dugun ezjakintasuna kontuan hartuta–, gaia ez da telesail honen bertuterik handiena; urteko telesail onen-tarikoa bihurtzearen arrazoi nagusia kontatzeko modua da, istorio hori, intimoa eta

orokorra aldi berean, nola pantailaratu duten alegia. Testuinguru horretaz baliatuz, belaunaldi oso baten erretratua egiten du, beren seme-alabak eta bilobak aurrera ateratzeko sufritu eta ahal zuten guztia egin zuten emakume korearren. Melodramarako joera duen garaiko drama gisa definituko nuke. Familia baten exodoaren eta identitatearen erretratua da, batez ere arbasoen kultura menderatu, mespretxatu, galdu eta erbesteratu denean. Muntaia lan paregabeaz baliatuz, paraleloan kokatzen ditu gertaera guztiak, denboran etengabeko jauziak egin- ez. Hauek, nahasgarriak izan beharrean, ezinbesteko bihurtzen dira osotasuna hobeto ulertzeko, iraganaren eta orainaren arteko oihartzunak etengabe entzuten baititugu, eta bata bestearikiko duen eraginaz kontziente gara une oro. Atalak igaro ahala, solte geratzen diren hariak lotzen ditugu eta narrazio sendoari esker une emozionalak eta estetikoak biderkatu egiten dira. Ezinbestekoa.



Isilgauzak

**Maidar Iantzi
Goienetxe**

Gehienek ez dakiten gauza bat da sekretua, dakienak ongi gordetzen duena. Baina ez dago ageriko sekretu bat isil dezakeen sekretariorik, ezta sekretuen legerik ere. Herriko bestak gerra oroitzuz hasteko ohitura hartu genuen, biziak gauza hagitx ederrak dituelako, baina benetan itsusiak ere bai, eta horiei entzungor egiteak ez ditu desagerrarazten. Izatekotan, xuxurlak garrasi bihurtzen ditu.

2018an, 1936ko gerrako ahantziek bota zuten txupinazoa. Udaletxeko balakoira goititu eta plazan bildutako jendetzari mintzatzeko aski indar eta umore izan zuten hiru adineko pertsonak, altxamendu militarren ondorioak beren larrutan bizi eta aitzinera

egin zutenak, azken urteetan ziren, eta justu-justu baina aitortza hori jaso ahal izan zuten. Aurten, ezusteko testigantza bat izan dugu besten hasierako altxaferoaren aitzinetik udaletxean den ahantzien eskulturaren ondoan egindako ekitaldian. 1939 eta 1941 bitartean Beran izan zen ehungarren baitailoiko Domingo Mengual Segarra presoaren alaba, Vicenta Mengual, eta Rafa Val biloba etorri dira espres Valentziako El Cavanyaletik. Beran izan ziren 2.357 presoetako bat izan zen Domingo Mengual eta, alabak kontatu duenez, gatibu egon arren herriaren oroitzapen ona gorde zuen. Familiak ingurua eza gutzeko aukera izan du, eta Udalaren esku utzi ditu aitaren dokumentuak.

Ministroen Kontseilu espainolak onartutako sekretuen legeak, frankismoaren ondorengo lehenak –aurrekoa 1968koa zen– dokumentuak desklasifikatzeko epeak ezarri ditu, baina luzeegiak dira: oraindik 2050 ingurura arte itxaron beharko dela diote. Bitartean, eskala txikian, tokian toki, istorioak ezagutzen ari gara eta poliki-poliki isil-gordeak argitzen ari dira. Ahanzturaren aurkako sekretua herri xehearen oroimena da. Urte luzeetako errepresiopean ongi gordetako oroitzapenak dira, plazaratzeko unearen zain egon direnak. Momentu hori ailegatzen denean bilakatzen dira isilgauzak kontakizun, albiste, eta Historia. •

Piratak

**Xabier Mikel
Errekondo**

Gaur zortzi hasiko dira Donostiako jaiak. 2022ko Aste Nagusia. Ene iritziz, euskal hiriburuetako jai nagusien artean kaxkarrenak eta zozoenak, Piratek salatzuten duten moduan “izozkia, su artifizialak eta hotelen hiriko jaiak”. Halere, ez diezaiozun iruzurrik egin geure buruari eta aitor dezagun gainerako hiriburuek ere menu hirukoitz horretatik sobera jaten dutela, nahiz nabarmena den gainerako hirietako jai nagusiek aparteko kale giroa eskaintzen dutela.

Iruñean peñek, Bilbon konpartsek, Gasteizen blusek ehunka ekitaldi anto-

latzen dituzte programa ofizialetik at eta guztiak kalean, kaleak girotuz edonorentzat. Hainbeste, non gauez zein egunez inguratzea nahikoa duzun giroaren eta erritmo biziaren magian harapatua sentitzeko giharrak eta burua aske joaten uzteraino.

Nago herriko jaiak kaleak hartu egin behar dituztela, jendeak kalean bizi behar dituela jaiak, kaleetan eta kalera begira dauden taberna eta txosnetan, esaterako; izozkiek hor ez dute lekurik... Pandemiaren ondoren Donostian inoiz baino beharrezkoagoak dira Piratak, herritarrengan sortu zuten ilusioa

berpizteko eta indartzeko, luze baino lehen hiria piratez blaitzeraino, soilik piraten ekintzek bailezakete izozkiz eta su hutsez betetako jai artifizialak abordatu eta anekdotiko bilakatu kaleetako kolore eta giro biziaren dardarak irentsit.

Argi, beraz, Donostia ponpoxoan Ontziola zaharra aurrera doa eta piratez betetako Kofradietan antolatuta hiriburua aldatzera doaz... pirata maltzurak.

Jaiak ez dira zertan denak antzekoak izan, baina zabiltzan tokian zabiltzala izan pirata! •



Maitena Usabiaga Sarasua
Sexologoa eta psikologoa

Atzo manada, gaur ziztadak... bihar zer?



U darekin batera gure komunikabideak jaian gertatzen diren erasoen bozgorailu bihurtzen dira. Egunero datu berriak, emakumeenganako indarkeriaren metodo berritzaileen azalpen zehatzak, erasotako kontagailua martxan. Uda, jaiak, aisialdia eta hortxe berriz ere beldurra ate joka. Kasualitatea?

Zoritxarrez, urte guztian zehar izaten diren gertakariak dira erasoak, erailketak, tratatu txarrak. Azken ikerketa batek azaltzen duenez, bikote barnean gertatzen diren bortxaketak bestelako guztiak halako hiru dira ("International Journal of Environmental Research and Public Health"-en argitaratutako ikerketa, estatu espainoleko hainbat eragileren artean). Esaterako, aztertutako 16 urtetik gorako emakumeen artean, gehiago izan dira bikotekideak bortxatuak beste edozeinek baino. Badakigu aspalditik halako eraso eta indarkeria gehienak familia nuklearean eta bikoteen artean gertatzen direla, baina hala ere beldur gehien aisialdian sartzen digute: kontuz, kale bazterrean edozein gizonek bortxa zaitzake; kontuz, etxera bakarrik bueltatzearekin, aplikazio bat deskargatu nik jakin dezadan non zauden une oro... Kanpaina izugarria. Eta ez dut esan nahi gertatzen ez direnik, jakin badakigu gertatzen direla eta nazkagarria da. Eta era berean haserre nago beldurra beti espazio publikoetan, aisialdian, plazerean... inposatzen digutelako.

Imajinatzen duzue bikote harreman heterosexualei buruzko beldurra etengabe sartzea? Komunikabideak familia eredu honen aurka adieraztea, esanez

halako egiturek emakume eta bazterretako edonor baztertzen dutela eta erasotzen? Bikote heterosexualak izatean probabilitate gehiago duzula bortxatua izateko? Baina ez, noski, ez ditugu halakoak entzuten. Parrandetan, aisialdian, jasaten ditugun erasoek dute garrantzi gehiago, nahiz eta gutxien gertatzen direnak izan. Joder, berriz ere guk ibili behar dugu kontuz; «kontuz hain ondo pasatzearekin, desfasatzearekin... bortxatu egin zaitzakete-eta».

Eta zenbat mezu doaz beraientzat? Bortxatzen eta erasotzen duten gizon heterosexual horientzat? Zero. Aitei, osabei, lehengusu, bikote, lagunei zuzendutakoak? Zero. Eta zer nahi duzue esatea, ez zait kasualitatea iruditzen jaiak iritsi

eta mundu guztiaren ahotan eraso hauek egotea, ez da berria espazio horiek gureak ez direla esatea. Argumentuak aldatuz doaz baina mezua ez: kaleak ez dira gureak, lagunak.


Nekatua eta nazkatua beldurra kudeatzeaz, parrandak ez direla leku seguruak entzuteaz, ezezagun batek bortxatuko nauen pentsatzeaz... eta bitartean sakoneko mezuak, erroan daudenak zalantzan ez jartzeaz; izan heterosexuala, bikotea izatea ezinbestekoa da zure zoriontasunerako, familia da daukagun gauzarik garrantzitsuenak... Hipokrisia nazkagarri eta jasanezina. Kaleei begira gauden bitartean inork ez ditu etxe barneak begiratzen, bikote ereduak zalantzan jartzen, harremantzeko ditugun zailtasunen inguruan hausnartzen... Baina, ei! Lasai, parrandan ateratzen ez bazara ez zaizu ezer gertatuko, gelditu etxean eta dena ondo joango da. Ezaguna zaizue? •



Sanferminetako eraso bat salatzeako elkarretaratzea. Jagoba MANTEROLA | FOKU

BEHATXUL[]TIK

Juantxo EGAÑA



KUTXATEKA. MUNOA FUNTSA. EGILE EZEZAGUNA.

DONOSTIA, LEHEN ABIAZIO ERAKUSTALDIEN LEKUKO

Benito Loygorri biarritzarra jotzen dute hegazkin-pilotu lizentzia lortu zuen lehen euskal herritartzat. Abiazioaren lehen urte horietan, Donostia aireko erakustaldien eremu bihurtu zen. 1910ean, Loygorrik, Maria Minondo donostiarra kide zuen aireko erakustaldi batean, lurreratze bat egin behar izan zuen hondartzan, matxura baten ondoren. Urte horretan bertan, Humberto Le Blon frantziarra hil zen, bere hegazkina Donostiako badian egindako erakustaldi batean hondoratuta. 1914ko martxoaren 16an, Elie Hanouille pilotu belgikarra, garai hartako prentsak jasotzen duen bezala, jendez gainezka zen Kontxako pasealekutik aireratu zen 14.25ean, Donostiako badian aireko akrobazia batzuk egiteko. Kanpai buelta oso batzuk eman eta beste batzuetan huts egin ondoren, hegazkina erori egin zen badian aireratu eta 15 minutura, eta 23 urte zituen pilotu belgikarra hil egin zen. Irudian, Hanouilleren hegazkina Kontxako pasealekutik aireratu zen unea.

Begiratzeko modua aldatzeak
aldatu dezake mundua



GAUR8 Larunbatero **GARA**rekin

